



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 20a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00078. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ospitaleen eta bertako aparkalekuen segurtasunaren ebaluazioa egin dezan. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (2. or.).
- 10-22/MOC-00079. Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernua premiatzen da ahalik azkarrena eta osotasunez egin dezan transposizioa, iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarena eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komunaren gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarena. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/MOC-00080. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 10-22/MOC-00081. Mozioa. Horren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 10-22/MOC-00063. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Batzordean izapidetzea (7. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 10-22/ELC-00007. Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Batzordean parte hartuko duten bi pertsona hautatzea. Hautagaiak aldarrikatzea (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00078. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ospitaleen eta bertako aparkalekuen segurtasunaren ebaluazioa egin dezan.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ospitaleen eta bertako aparkalekuen segurtasunaren ebaluazioa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Ospitale-segurtasunak bermatu behar du osasun arreta alferrikako arrisku edo istripuak izateko arriskurik gabe eman dadin.

Ospitale-segurtasunaren kontzeptuak xede duen agertokian, langileak, osasun arloko profesionalak, pazienteak, azpiegitura eta ekipoak istripu-arriskutik libre daude ospitale baten jardun klinikoan zehar.

Funtsezkoa da fokua zabaltzea eta ospitaleen dagoen segurtasuna jorratzea; alegia, osasungintzakoak ez diren alderdiei dagokiena, osasun arlo-

ko langileen eta pazienteen segurtasunarekin zerikusia duena; izan ere, uneren batean eraso baten biktima izan daitezke, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko kafetegiko emakumezko langile bati duela egun batzuk gertatu zitzaion bezala.

Halaber, lapurretak eragotzi beharra dago (duela zenbait egun jakin genuen Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan endoskopioak lapurtu zituztela, baina ez da izan lapurtu den osasungintza-material bakarra), bai eta ospitalegunean hala pazienteek nola profesionalak dauzkaten ondasunekiko erasoak ere. Ez da afera esporadiko bat, eta areagotzen ari da herrialdeko ospitale guztietan.

Ospitalea oso gune berezia da. Bertan zerbitzua jasotzen duten pertsonen une zailak bizi dituzte hainbat arrazoi direla medio, eta bertan lan egiten dutenek tentsio gehigarria pairatzen dute beren jardunaren berezko ezaugarriengatik. Horregatik guztiagatik, eremu seguru bat behar dute.

Nafarroako ospitaleetan segurtasunak bere bilakaera izan du. Hasieran, Nafarroako Ospitaleak Foruzaingoaren babesa izan zuen. Laster, segurtasun enpresei ireki zitzairen bidea, zinpeko zaindarekin, eta hori da gaur egun dagoen erdua.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak honakoetara premiatzen du Nafarroako Gobernua:

1. Ebaluazioa egin dezan Nafarroako ospitaleetan, aparkalekuak barne, dagoen segurtasunari dagokionez, kontuan hartuz zinpeko zaindarien kopurua, zaintza bereziko puntuak, arazo ohikoenak eta abar.

2. Segurtasuna modu eraginkorrean indartu dezan, ikusi diren okerrak zuzenduz.

3. Azter dezan zer aukera dagoen segurtasun-neurriak osasun etxeetara hedatzeko.

4. Azter dezan zer aukera dagoen ospitaleetako segurtasun-eginkizunetara foruzainak eramateko.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

10-22/MOC-00079. Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernua premiatzen da ahalik azkarrena eta osotasunez egin dezan transposizioa, iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarena eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarena.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita ahalik azkarrena eta osotasunez egin dezan transposizioa, iturri berriztagarrietatiko energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarena eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarena..

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Energia-krisia arazo larri bihurtu da, eta gizarteko sektore guztiei —herritarrek, enpresak...— eragiten die. Horiek horrela, neurri drastiko eta presakoak behar dira, krisiaren ondorioak arintzeko. Neurri beharrezkoak maila globalean, Europako eta estatuko esparruetan eta baita gure erkidegoan ere.

Presaren handiagokoa da modu praktikoan aplikatzea Nafarroako energia-planak biltzen dituen helburu estrategikoak, lotura dutenak generazio banatua sustatzeko energia-sorkuntza eta kudeaketarekin, hala hiriguneetarako nola industriaguneetarako, energia berriztagarritzko instalazioen bidez elektrizitatea sortzeko sistemekin, banaketa-sarean elkarlotutako eta garraio-sarearekin konektatutako sistemekin.

Lortu behar dugu krisia aukera izan dadila hainbat prozesu azkartzeko, hala nola efizientzia energetikoa, autokontsumoaren sustapena eta iturri berriztagarrietako energiaren gehikuntza. Egoan egotearen, paralizazioaren eta moratorien aurrean, arintasun handiagoa eskatzen dugu alderdi horietan guztietan.

Merkatuen defentsarako neurrien “koordinazio-rik eza” dela-eta “Europa atzeratuta geratzen ari da beste zonalde batzuekiko”. Merkatuko % 23 besterik ez da “irisgarria inolako merkataritza-oztoporik gabe” mendebaldeko fabrikatzaileent-

zat. Txinak dituen “oztopo gogor” horiez gain, beste herrialde batzuek ere -EEBB, Kanada, Brasil, Hego Afrika, Hego Korea eta India-” nolabaiteko zailtasunak jartzen dituzte”.

Horregatik, berriki Irujo kontseilaria Europar Batasuneko Energiako Zuzendaritza Nagusiko Green Transition and Energy System Integration horretako zuzendari nagusi Catharina Sikow-Magnyrekin Bruselan bildu zen, eta adierazi zion “presakoa” dela “enkante-sistema birmoldatzea eta tokiko edukia indartzea; azken finean, Europako politika industrial aldaketa berriztagarrien arloan”.

Bestalde, azaroaren 18ko 1699/2011 Errege-dekretuak, potentzia txikiko argindarra ekoizteko instalazioak sarera konektatzeari dagokiona arautzen duenak, honela dio bere 2.3 artikuluan –“Aplikazio-esparrua”–: Errege-dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da energia-sorkuntzarako instalazio bakar bat osatzen dutela ebakuazio lineak edo azpiegiturak partekatzen dituzten teknologia bereko instalaziomultzoek, bai eta lehen hamalau digituen bidez identifikaturiko katastro-erreferentzia berean kokatzen diren teknologia bereko instalazioek ere. Instalazioaren potentzia, potentzia unitarioen batuketa izanen da. Horri begira, teknologia desberdintzat hartuko dira honako hauek: eguzki-teknologia fotovoltaikoa, eguzki-teknologia termoelektrikoa, geotermikoa, olatuetakoa, itsasaldietakoa, arroka bero eta lehorretakoa, ozeanotermikoa, itsas-korronteetakoa, eolikoa, kogeneraziorik gabeko termikoak eta kogenerazioko termikoak”. Testu horren arabera, ezin dira estalki berean jarri bi instalazio fotovoltaiko (100 kW-tik beherakoak), titular desberdinenak badira. Garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea 100 kW-tik gorako instalazioez ariko bagina ez litzatekeela aplikatzekoa izanen 1699/2011 Errege-dekretua. Hori dela-eta, instalazio txikiei ezarritako muga ez dago justifikatuta, gure ustez.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du ahalik azkarrena eta osotasunez egin dezan transposizioa, iturri berriztagarrietako energiaren erabilera sustatzearen gaineko 2018/219/EE Zuzentarauarena eta elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun gaineko 2019/944/EE Zuzentarauarena.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du 244/2019 Errege-dekretua alda dezan, halako moduz non handitu ahalko den kontsumitzailearen eta ekoizlearen arteko distantziaren muga –gaur egun 500 metrora mugatuta dago–, autokontsumorako sorkuntza-gaitasuna ahal den handiena izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du, Nafarroako Gobernu Garen Ekonomikorako kontseilariak Green Transition and Energy System Integration-eko zuzendariari Bruselan zuzenean eginiko eskaeraren haritik, Europako Batzordeari eska diezaion enkante-sistema aldatzea, energia berriztagarriko industriaren arloko tokiko edukia indartzeko, beste merkatu batzuetan dauden aduana-zerga babesleen antzekoak ezartze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu premiatzen du potentzia txikiko energia ekoizteko instalazioen sarearekiko konexioa arautzen duen 1699/2011 Errege-dekretua alda dezan, estalki berean bi instalazio independente jarri ahal izateko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du gure erkidegoko toki entitateekin lankidetzan aritu dadin –industrialdeak dituzten guztiekin, batez ere–, lurralde antolamendurako tresnen bidez, deskarbonizazioan lagunduko duten eta energia berriztagarrien garapena eta trantsizio energetikorako aurrerabidearen eragin-kortasuna areagotuko duten osagai teknologien ezarpena sustatzeko –xafla fotovoltaikoak, minieolikoa, hidrogenoa...–.

Iruñean, 2022ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/MOC-00080. Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala esku har dezan Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak betetzea, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioaren eledun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Volkswageneko enpresa-batzordeak denbora darama ohartarazten ibilgailu elektrikoa ekoizteko planta eraldatzeak ekar dezakeela 2026an enplegua galtzea Landabengo plantan, ekoizpen-bolumen nahikoa ez bada bermatzen.

Aste honetan jakin dugu Volkswagen taldeak Martorellgo plantarako egin duen plangintzaren arabera Kataluniako plantak har litzakeela hasiera batean Landabenen egitekoak ziren 50.000 ibilgailu elektrikoa, eta horrek alarma guztiak piztu ditu.

Hori horrela bada, Nafarroako enpleguan eta ekonomian izanen duen eragina izugarria izanen da, Volkswagenek eta planta horri loturiko industria osagarriak gure BPGean duten pisuagatik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala esku har dezan, Volkswagen taldeari eskatze aldera Landabengo plantako enpresa-batzordearekin lortu ziren akordioak bete ditzan, ibilgailu elektrikoa ekoizteari eta enplegua mantentzeari buruzkoak, halatan lortzearen ez dadin lanposturik gal eta planta horretan nahiz Nafarroako hornitzaileen osotasunean enplegarritasuna mantentzen dadin.

Iruñean, 2022ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/MOC-00081. Mozioa. Horren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen da “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberrri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxuturiko neurriek adostasuna izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberrri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2020ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita.

Zioen azalpena

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak jendaurrean jarri du “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onesten duen foru dekretuaren proiektuaren zirriborroa.

Berreskuratze plan honen jatorria dago Espainiako Gobernuak Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren bidez onetsitako Arriskuan dauden estepako hegaztiak kontserbatzeko Estrategian.

Halaber, Europar Batasunak Hegazti basatien kontserbazioari buruzko 147/EE Zuzentaraua onetsi zuen, eta horren bidez exigitzen du neurriak hartzea estepa-hegaztiak berreskuratu eta

kontserbatzeari begira. Europako Batzordea bera ere, araudi desberdinen bidez, zorrotz agertzen da mehatxaturiko eta galtzeko arriskuan dauden espezieen defentsari dagokionez.

Gaur egun, Nafarroan aldi berean ditugu gune babestuak eta zenbait murriztapen, zeinak ezarri baitira Europako Natura 2000 Sareko zati edota aurreko gobernuek zehaztutako babes bereziko eremu, Hegaztien Babesgune Berezi (HBB) eta Nafarroako estepa-hegaztien kontserbaziorako interesgune izateagatik.

Garrantzitsua da azpimarratzea nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin eta oro har landa garapenerekin loturiko Europako laguntzen zati esanguratsua bat jasotzeko baldintza dela ingurumena eta galzoriko espezieak babesteko zuzentarauak betetzea.

Bestetik, PSNk Nafarroan duen helburuetako bat da lurralde osoaren garapena lurralde-kohezioaren ikuspegitik egitea, bai eta despopulazioa borrokatzea ere; hori dela eta, uste dugu landa-eremuen garapen ekonomiko eta sozialak lehen-tasuna izan behar duela gobernu-ekintzan.

Horren haritik, PSNrentzat oso garrantzitsua da Nafarroako Ubidea garatzea eta, ondorioz, ureztalurrak eta nekazaritzako elikagaien industria garatzea, bai eta klima aldaketa eragiten duten erregai fosilen ordezko izanen diren energia berriztagarri beharrezkoak garatzea ere. Horrek guztiak ingurumenaren eta biodibertsitatearen errespetuarekin bateragarria izan behar du; hau da, galzoriko espezieen ekosistemak mantentzearen eta landa eremuetako garapen ekonomikoaren eta giza jardueren arteko oreka bilatu behar da.

Halaber, kontuan izan behar dira ukitutako toki entitateen eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen, nekazaritzako elikagaien industriaren eta ukitutako partikularren ordezkarien iritziak.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ean taxutu-

riko neurriek adostasuna izan dezaten; eta, horrenbestez, toki entitateen, interes taldeen eta ukitutakoen borondatezko parte-hartzetik proposa daitezten. Adostasun hori lortze aldera, ezinbestekoa da, horrenbestez, ukitutako entitateekin negoziazio fase bat irekitzea.

2. "Nafarroako agroestepak" izeneko babes bereziko eremuak ukitzen dituen guztientzat konpentsazio formulak ezar daitezela, bai eta prozedurak eta haien eskura jarri beharreko baliabideak ere.

3. Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko planaren edukia Nafarroako hazkunderako eta kohesiorako helburu estrategikoekin bateragarria eta haien ildokoa izan dadin; bereziki, nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren garapenarekin duen loturagatik, Nafarroako ubidearen bultzadaren eta energia berriztagarrien garapen eta ezarpenaren bidez planifikatu baita.

Iruñean, 2022ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

10-22/MOC-00063. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen baitira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasoba-

karretara. Mozioa 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/ELC-00007. Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Batzordean parte hartuko duten bi pertsona hautatzea.

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Batzordean parte hartuko duten bi pertsona hautatzeko arauekin bat, zeinak 2022ko irailaren 5eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (98. NPAO, 2022ko irailaren 9ekoa), honako hau ERABAKI DA:

1. Honako bi pertsona hauek aldarrikatzea hautagai Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan

gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Batzordean parte hartzeko:

– Esther Aldave Monreal eta Ana Carmona Juanmartiñena andreak, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak proposatuta.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya